

UROLA KOSTAKO HITZAGUKA

UROLAKOSTA.HITZA.EUS

OSTIRALA, 2023KO

AZAROAREN 17A

XX. URTEA, 5.469. ZENBAKIA



KANTATZEN DUEN HERRIA, BIZI-BIZIRIK

1983. urtean sortu zuten Zarautz Abesbatza, eta beraz, 40 urte bete ditu kultur proiektuak. Inaxio Goenaga eta Arantxa Iturria hasieratik dira talde horretako kide, eta atzera begira jarri dira, aurrera ekiteko indarririk galdu gabe, inoiz ez baita itzaltzen kantatzen duen herririk // 2

**Anaitasunaren eta
Lagun Onaken
gizonen taldeek
derbi «berezia»
jokatuko dute
bihar Txerloian // 5**



«Amets guztien
bila joatea da nire
planteamendua,
inolako mugarik
jarri gabe»

Jon Maia
Sortzailea

'Kantu bat gara' disko-liburua kaleratu du Jon Maiak, hamalau abestiz eta poema luze batez osatuta. Identitatearen gaia oinarri hartuta, «herri proposamen bat» garatu du // 4

Errezil Aiara
Karrera gazte
erreizildarra,
futbolearen urrats
garrantzitsuak
egiten eta
ametsak
betetzen // 6



Inaxio Goenaga eta Arantxa Iturria, abesbatzaren lokalean. MIREIA GALARZA BASTIDA

1983. urtean sortu zuten Zarautz Abesbatza, eta badaude taldean hasieratik abesten jarraitzen duten kideak. «Lanean jarraitzeko prest» daudela azaldu dute horiek.

40 urtez herriari doinuak jartzen

—MIREIA GALARZA BASTIDA

Frankoren diktadurara amaitzearekin batera, gizartearen merezitako lekua hartzen hasi zen euskal kultura. Euskal Herriko txokoetan barrena, zientoka kultur talde sortu ziren, baita Zarautzen ere, tartean Zarautz Abesbatza. Garaiko Ignazio Lertxundi kultur zinegotziaren eta Imanol Murua alkate-

aren aupadaz, herrian abesbatza bat sortzeko lehen pausoak eman zituzten 1980ko hamarkadan, zehazki 1983. urtean, eta Joakin Iruretagoiena izan zen lehen urteetako zuzendaria. 40 urtean asko izan dira taldetik igaro diren zarautzarrak, baina badira oraindik hasiera-hasieratik bertan jarraitzen duten batzuk ere, tartean Arantxa Iturria (Zarautz, 1953) gaur egungo abesbatzako lehendakaria eta Inaxio Goenaga (Zarautz, 1959) abeslari tenorra.

Sorreratik 40 urtera, urteurrena ospatzeko kontzertua eskainiko dute Aritz baltaldean, Zarautzko Musika Bandarekin batera. Bihar izango da hori, 19:30ean, eta abesbatzako kideak azaldu dutenez, «urduritasun puntu batekin» ari dira igarotzen azken egunak. Izan ere, Iturriak dio beraien ahotsak bandarekin egokitu behar dituztela, eta lan «handi samarra» dela hori, jende asko dagoelako taldean, guztira 120 pertsona. «Dei bana egin genien pertsonalki abesbatzako kide ohiei, beraiek ere kontzertu ho-

netan parte hartu zezaten, eta egun abesbatza osatzen dugun abeslari ez gain, beste 70 bat lagun animatu ziren urteurrenoko kontzertura», gehitu du Iturriak. Errepertorioari dagokionez, abesbatzako lehendakariak dio ez dutela «ezer berezirik» eskainiko, aurrez kantatutako abestiak izango direla.

Hasieretara itzulita, garai haiek «ilusioz» gogoratzen ditu Goenagak, eta bera abesbatzan hasi zen moduz ere mintzatu da: «Egunkarian iragarri zuten abesbatzaren sorrera, eta hori ikusi eta gero animatu nintzen ni. Hasieran taldea osatzea eta finkatzea zen helburua, eta handik aurrera hasi ginen pixkanaka lanean», gaineratu du. Iturria, berriz, abesbatza sortu eta hiru hilabetera sartu zen taldera, hasieran ez zelako ausartzen. «Gabinen haiek kontzertu bat eskaini zuten, eta txundituta geratu nintzen. Zuzendariak berak, Iruretagoierek, deitu zidan, eta orduan hasi eta gaur egunera arte jarraitu dut. Ez naiz inondik inora damutzen, nire bizitzako zati

handi bat delako abesbatza», azaldu du sopranoak.

Bizipenak, eta aldaketak

Harrezkeroztik, euri asko egin du, eta nahikoa bizipen ere izan dituzte elkarrekin. Adibidez, Goenagak buruan du Zarautzko herriaren 750. urteurrenoko bat. Orduan, Frantzisko Eskudero Joan Bautistari buruzko obra bat sortu zuen, eta horren bueltan kontzertu bat eskaini zuen abesbatzak: «Hori izango zen eman genuen lehen kontzertu sendonetako bat; kiroldegian eskaini genuen, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eta Donostiako Orfeoiko kide batzuekin».

Iturriak, bere aldetik, egindako bidaiak gogoratu ditu. «Argentinara bidaiatu genuen behin, eta oso momentu hunkigarria bizitzea tokatu zitzaigun. Izan ere, abesti bat kantatzen ari ginela, publikoa negarrez hasi zen. Hasieran uste genuen gaizki ari ginela, baina gero esan ziguten abesti horrek bazuela beraienez ere esanahia. Kasualitatea izan zen, ez genekien ezer»,

eman du jakitera orduan gertatu Iturriak, nostalgia puntu batekin.

Urte guzti hauetan, abesbatza «ikaragarri» aldatu dela gaineratu dute bi kideek. Iturriak dio hasieran gizonezko pila bat zeudela taldean, baina urteen poderioz, hori aldatu egin dela. «Orain ez dago gizonek, ezta mu-



«Abesbatzako ohiko kideez gain, beste 70 kide ohik ere abestuko dute bihar gurekin»

Arantxa Iturria

Abesbatzako lehendakaria

«Abestea gustuko duen edonor etor daiteke gure taldera; pozik jasoko ditugu»

Inaxio Goenaga

Abesbatzako kidea

til gazterik ere, denek kirolera edo bestelako diziplinetara jotzen dutelako gaztetatik», dio serio. Gazteengatik orokorrean galdetuta, Iturriak «xelebrekeria» hitza erabili du gertatzen dena azaltzeko: «Gazteen abesbatzan ibiltzen dira asko, baina gero, unibertitate garai horretan, denek uzten dute, eta ez dira itzultzen ikasketak amaitzen dituztenean».

Puntu horretan, abesbatzek duten garrantziaz hausnartu du Goenagak. Haren ustetan, herrian abesbatza bat izateak musikaz gozatzeko aukera ematen du, baita bertako kide izateko aukera ere, «abestea gustuko duen edonorentzat irekita baita gotaldea». Kanpora begira, abesbatzako herriaren izena ezagutarazteko ere balio duela dio Goenagak. Herriak abesbatzari eskaintzen dionari buruz galdetuta, Iturriak zera gehitu du: «Publiko oso fidela dugu, eta hori eskertzekoa da. Izan ere, askotan galdetzen digute herriarrek noiz eskainiko dugun kontzerturen bat, eta hori pozteko modukoa da».

Aurrera begira ere badaude Zarautz Abesbatzako kideak. Azaldu dutenez, pandemiaren ondorioz gutxiago irteten dira kalera, baina irteten diren aldiro «gauzak ondo egiten» saiatzen direla adierazi dute Iturriak eta Goenagak. «Gustura geratzen dira gurekin, eta helburua izango da horrela jarraitzea. Ikasten jarraitu nahi dugu, eta abesbatzaren proiektuari eutsiko diogu, denon artean lan eginez».

Iragarki laburra

Alokagari

Zarautz. San Pelaion, bi logelaren alokairua. Txokodun jardun pribatuarekin. Epe luzerako, konfiantzazko bi emakume pisukideren bila nabil. Animaliarik gabe. Bakoitzeko 525 euro hileroko, eta etxeko gastuak hiruroen artean partekatzen. Ana: 667 33 8727.



2022ko Bizkargi musika eta dantza eskolaren Santa Zeziliako kontzertua. MAILO OIARZABAL

Santa Zezilia Eguna ospatuko dute Urola Kostako hainbat herritan

Aurten Azkoitiko Bizkargi eta Azpeitiko Juan Antxieta musika eskolak 40. urteurrena ospatzen ari dira, eta Santa Zezilia Egunerako ekitaldi bereziak antolatu dituzte bi herri horietan.

-AIORA LARRAÑAGA- -ANE OLAIZOLA

Azaroaren 22a Santa Zezilia Eguna izaten da, musikarien eguna, eta urtero bezala, eskualdeko

musika eta dantza eskoletako ikasleak eta abesbatzetako eta musika bandetako kideak kalera aterako dira egun hori herritarrekin ospatzera.

Aurten Azkoitiko Bizkargi eta Azpeitiko Juan Antxieta musika eskolak 40 urte bete dituzte, eta urteurren ospakizunen barruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Egitaraua

AIZARNAZABAL

Azaroak 22, asteazkena.

-17:00. Kalejira herrian barrena.
-17:15. Alaitsu musika eta dantza eskolako ikasleen emanaldia.

-Ondoren, Musika eta dantza eskolako ikasleentzat askaria. *Oharra: Eguraldi ona bada, emanaldia zahar etxe aurrean izango da, eta eguraldi txarra bada, eskola azpian.

AZKOITIA

Gaur, ostirala.

-19:00. Santa Zeziliako jaialdia Baztartzon. Bertan parte hartuko dute musika eskolako ikasleak, Iraurgi abesbatzak, Sahatsa dantza taldeak, Txalkor txistulari taldeak eta Musika Bandak.
-Azaroak 22,asteazkena.
-17:30. Musikalean saioa Gaztareneko parkean.

AZPEITIA

Azaroak 19, igandea.

-18:30. Kantuz daramat bizia ekitaldia Sanagustinen, Juan Antxieta musika eskolaren 40. urteurrenaren harira.

Azaroak 22, asteazkena.

-19:00. Juan Antxieta musika eskolaren emanaldia Sanagustinen kulturgunean.

Azaroak 25, larunbata.

-12:30. Musika Bandaren Santa Zeziliako kontzertua.

GETARIA

Azaroak 19, igandea.

-12:30. Gazte Alaiak txistulari taldearen emanaldia, Salbatore Deunaren elizan.

Azaroak 21, asteartea.

-18:00. Pepita Enbil musika eskolaren emanaldia Iturzaeta aretoan.

Azaroak 22, asteazkena.

-19:00. Getariako Musika Bandaren kalejira.

Azaroak 26, igandea.

-09:30. Diana Musika Bandaren kin.

-12:30. Getariako Musika Bandaren Santa Zezilia Eguneako kontzertua.

ORIO

Azaroak 21, asteartea.

-17:30. Trikitilarien eta txistularien kalejira herrian barrena.

-18:00. Herriko plazan kontzertua eskainiko dute trikiti eta pandero taldeak, soka taldeak, bandak eta dantzariak.

-Ondoren, txokolate beroa banatuko dute ikasleen artean.

Azaroak 25, larunbata.

-13:00. Salatxo abesbatzaren kontzertua 30. urteurrena ospatzeko.

ZARAUZ

Azaroak 22, asteazkena.

-19:30. Herriko abesbatzetako kideek kantuz girotuko dituzte kaleak, Musika Plazan hasita.

Santa Zezilia Egunaren bueltan. Bizkargi musika eskolako kideak azaldu dutenez, aurtengo Santa Zeziliako kontzertua «berezia» izango da, 40. urteurreneko ospakizunei amaiera emango dietelako ekitaldiarekin. Gaur izango da emanaldi berezi hori, 19:00etan, Baztartzon antzokian, eta musika eskolako ikasleek ez ezik, herriko beste hainbat taldeek ere parte hartuko dute, hala nola Iraurgi abesbatzak, Sahatsa dantza taldeak, Txalkor txistulari taldeak eta Azkoitiko musika bandak. Herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira.

Bizkargik eskerrak eman dizkie jaialdian parte hartuko duten talde guztiei, «ospakizunean egon nahi izan dutelako», baita herritarrei ere: «Beraiek gabe ezinezkoa litzateke musika eskolak bizirik irautea herrian. Herriarrak dira gure motorra, eskola bizirik mantentzea lortu dutelako». Bestalde, «esker on berezia» helarazi dio musika eskolak udalari, eskola sortu zenetik gaur egunera arteko prozesuan «hurbil» egon delako erakundea, eta «behar izan denean laguntzen saiatu» delako.

Halaber, Juan Antxieta musika eskolaren 40. urteurrena ospatzeko ekitaldi bereziak antolatu dituzte datozen asteetarako. Batetik, igandean, *Kantuz daramat bizia* saioa izango da, eta abenduaren 3an *Kantatzaren duen herri bat* izeneko kontzertua. «Euskal kantagintzaren transmisioan urratsak» egin nahi dituzte ekitaldiekin.

Kantu jiran parte hartuko dute Zarautz Abesbatza, Montetxio, Udaberri, Zarautz Kantuan eta Schola Cantorum abesbatzek.

Azaroak 23, osteguna.

-15:30. Imanol Urbietak musika eskolako ikasleen eta irakasleen kalejira hiru multzotan banatuta. Musika Plazan elkartuko dira guztiak, eta elkarrekin abestu ondoren, txokolatadarekin amaituko dute festa.

ZESTOA

Bihar, larunbata.

-20:00. Zestoako Musika Bandaren kontzertua. Eguraldiak laguntzen badu, aurretik kalejira egingo dute.

Azaroak 21, asteartea.

-17:30. Ertziñak musika eskolako ikasleen kalejira.

ZUMAIA

Azaroak 21, asteartea.

-18:30. Musika eta dantza eskolaren jaialdia Zumaiaren.

Aian bilera egingo dute azaroaren 25eko ekitaldiak antolatzen

AIA // Azaroaren 25ean Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna izango da, eta Aian indarkeria matxista salatzen ekitaldi sorta antolatu nahi dute. Horretarako, bihar egingo dute bilera, 11:30ean, Kanua jatetxeko jangelan, eta gazteak zein helduak deitu dituzte hitzordura. Asmoa da bertan proposamenak azaltzea eta guztien ekarpenekin azaroaren 25eko ekitaldiak adostea.

Osasunari eta elikadurari buruzko tailerra Aian

AIA // Zenbat dakizu zure osasunaz? tailerraren lehen saioa emango du Itsaso Erasun dietista-nutrizionistak gaur Aian. Gazte Asanbladak antolatu du ikastaroa, eta guztira, hiru saiotan banatuko da; azaroaren 24an eta abenduaren 1ean izango dira hurrengo saioak. Guztiak Kultur Etxean izango dira, 18:00etan. Doakoa da tailerra, eta parte hartzeko ez da beharrezkoa izango izena ematea.

'Azken ipuina amari' ipuina aurkeztuko dute Orion

ORIO // Haurrekin heriotzaren gaia eta dolua lantzea helburu duen *Azken galdera amari* ipuina ondu du Manex Beristain azpeitiarrak, eta datorren astelehenean Orioko Kultur Etxean aurkeztuko du, 19:00etan hasita. Aurkezpenean helduei nahiz haurrei zuzenduta egongo da, baina haurrak gurasoei joatea komeni dela azaldu dute saioa antolatu duten Zainbizi elkarte-kideak.

Larunbatean izango da skate parkearen inaugurazio festa

ORIO // Azaroaren 4rako aurreikusita zegoen Orioko skate parkearen inauguratzeko festa, baina bertan behera geratu zen eguraldi eskasagatik, eta bihar izango dela jakinarazi dute. Arratsaldean izango da festa, 15:30etik aurrera. Haur eta gaztetxoentzako tailerrak, skate librea eta afari modukoa egingo dituzte, eta maila guztietako erabiltzaileak gonbidatu dituzte.

- MAILLOIARZABAL

Azkoitiko eta Azpeitiko futbolzaleek hitzordua dute bihar 17:00etan Txerloian. Espainiako Hirugarren Mailako laugarren multzoko 11. jardunaldia-rekin iritsiko da 2023-2024 denboraldian Anaitasunaren eta Lagun Onaken arteko lehen neurketa. Azkoitian jokatu da bi herrietako futbol zelaietan zale gehien biltzen dituen derbiaren lehen kapitulua. Aparteko ikusmina sortzen dute beti bi talde horien arteko norgehiagokek, eta biharkoa ez da salbuespena izango.

Anaitasunak eta Lagun Onak, biek, ekin zioten denboraldiari entrenatzaile berriekin. Txema Añibarro (Zeberio, Bizkaia, 1979) eta Iban Fagoagak (Bera, Nafarroa, 1980) lehen derbia izango dute biharkoa, Anaitasuna zuzentzen lehenak eta Lagun Onak gidatzen bigarrenak. Jokalari profesional ohiak, atzelariak biak, aro ezberdinetan baina Eibarren jokatuak, klub armaginean sasoi berean ere aritu ziren, Añibarro talde nagusian jokatu eta Fagoaga harrobien entrenatzen. Bien arteko paralelismoak beste atal bat bizi du orain Anaitasunaren eta Lagun Onaken aulkietan, eta denboraldiko lehen hitzordu bereziaren atarian Txerloian elkar-tu ditu hedabide honek, derbiak hitz egiteko.

Partida «berezia»

Ligako gainerako neurketa guztietan bezala, bihar ere hiru puntu izango dituzte jokoan Anaitasunak eta Lagun Onak, baina Azkoiti-Azpeiti futbol lehiaren berezitasuna «sumatzen» dela aitortu dute entrenatzaileek, batik batik jokalarien artean. «Bada-kite bihar jendea etorriko dela, lagunak etorriko direla, gure kasuan, gainera, etxean jokatu dugu eta. Horrelako neurketak politak izaten dira herriarentzat eta zaleentzat», dio Añibarro. «Berezia» izango da biharkoa, zaleentzat ez ezik, derbia estreinakoz biziko duten bi entrenatzaileentzat ere.

Anaitasunaren eta Lagun Onaken arteko norgehiagoketan



Añibarro eta Fagoaga Txerloian, beren taldeen elastiko banarekin. URTZI OTEIZA

Txema Añibarrok eta Iban Fagoagak lehen sasoia dute Anaitasunaren eta Lagun Onaken gizonen talde nagusien aulkietan. Biher derbia jokatu dute bi taldeek Txerloian, partida «berezia» eta «desberdina».

Entrenatzaile berriak betiko derbirako prest

sortzen den antzeko lehia duten partidak jokatuak dela dio Añibarro; Fagoagak, aldiz, Eibarren osatu zuen futbolari ibilbidea gaztetatik, eta ez du gogoa parekotasunik izan zezakeen lehiarik.

Anaitasuna «gogotsu» dago biharko partidari aurre egiteko, Añibarro dioenez, nahiz eta aurreko jardunaldian «kolpe gogorra» hartuta iritsiko den taldea, hiru jokalarik min hartu baituzten belaunean Vitoriaren kontrakoan; Marinen eta Barbarinen lesioen pronostikoaren zain, Mikel Aramendiri baieztatu diote «lesio larria» duela. Lagun Onak, zorionez, ez du halakorik, eta denboraldiaren lehen zatia ona izaten ari da Azpeitikoentzat. Horrela dio Fagoagak: «Nahiko ondo gatoz.

Taldea hasieratik ari da itxura ona ematen, eta emaitza onak lortu ditu».

Aspalditxoko denboraldietan ez bezala, biharko derbia Lagun Onak sailkapenean Anaitasunaren gainetik dela iritsiko da: Azpeitiko taldea laugarren postuan da, 21 punturekin eta sailkapenaren burutik hiru puntura; Anaitasuna, berriz, taularen erdi aldean dabil, hamargarren postuan, hamabi punturekin. Baina derbietan taldeen sailkapenak garrantzirik ez duela esan ohi da, eta ados daude bi entrenatzaileak. «Orain arte egindakoak gutxi dio» du horrelako partidetan, Fagoagaren iritziz: «Nahiz eta batzuk goian eta besteak ez hain goian egon, partida hau desberdina da, jokatu egin behar da», dio. Añibarro uste du lehia be-

reziko partida horietan «jokalariek plus bat ematen» dutela, eta sailkapenean taldeen artean alde nabarmena egonda ere, «parekatu» egiten dela joko. «Uste dut sailkapena bigarren maila batera pasatzen dela eta emozioek zeresan handia izaten dutela, horregatik diot partida desberdinak izaten direla», gaineratu du Fagoagak.

Notak, bukaera

Lehen derbia iritsi aurretik jokatuak hamar jardunaldien balantzeaz galdetuta ere bat datoz Anaitasunaren eta Lagun Onaken entrenatzaileak: nahiago dute balantzeak denboraldia bukatutakoan eta osotasunean egitea. «Gauza positiboak» kontuan hartzearen alde agertu da, hala ere, Añibarro, lanaren helburua

beti «hobetzea» izan behar dela. Baina balantzeak egiten has-teko goizegi dela berretsi du: «Oraindik hamar jardunaldi jokatuta, asko geratzen da [34 jardunaldi ditu] logikaren fase erregularrak», eta notak bukaeran ematen dira. Denok nahiko genuke puntu gehiago izatea, beraiek zein guk. Egon dira gehiago merezi izan dugun partidak, aurkaria baino gehiago izanda, porrotarekin joan garenak etxera, baina futbola ez da merezimendu kontua. Hau luzea da, eta lanean jarraitu beharra dago». Balantzeetarako «goiz» da Fagoagarentzat ere: «Garbi dagoena da liga oso parekatua dela, edozeinek irabaz diezaioke edozeini. Berdintasun handia dago, eta horregatik, puntu bakoitzak garrantzi handia dauka».

Urrutira joan gabe, bihar bertan izango dute Anaitasunak eta Lagun Onak puntu berriak eskuratzeko aukera. Emaitzaren pronostikoa eskatuta, ezustekorako tarterik ez dute utzi entrenatzaileek: bakoitzak bere taldearen aldeko apustua egin du. Hala ere, emaitza zehatzik ez du eman Fagoagak. Liga nola, derbia ere hala ikusten du Azpeitiko entrenatzaileak, parekatua. Partida «itxia» izango dela aurreikusten du: «Bi talde on, bi talde serio gara. Jokalari onak daude bi taldeetan. Espero dut jende asko etortzea eta etortzen direnek partidaz gozatzea. Gustatuko litzaidake Lagun Onak on bat ikustea; hori horrela bada, gertuago izango dugu aldeko emaitza bat». Partida aurrez parekatua irudikatzerakoan ere Fagoagaren iritzi berekoa da Añibarro, baina Anaitasunakoa bai, aipatu du emaitza. «1-0ekoa sinatuko nuke nik», dio, baina batik batik derbia irabazteak taldeari egingo liokeen mesedea nabarmendu nahi izan du. «Aurreko asteak min egin digu, taldea ukituta dago», azaldu du, min hartutako jokalarien egoerak taldekideengan izan duen eragina nabarmenduz. Etxean jokatu du Anaitasunak eta Txerloian elkartu diren zale gehienak alde izango ditu; horrek taldeak behar duen «bultzada» ekartzea espero du Añibarro.



ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUAK BAKARRIK ESKAINTZEN DIZU ZERBITZU INTEGRALA

- Beilatokia eta errausteketa-labea instalazio berean
 - Eraikin berria, modernoa eta eraginkorra
 - Areta intimoa eta argitsuak
 - Profesional berberak
- Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.

943 894 937 / 943 422 129 (24h)

memoria.es
Abendaño Kalea, 2 - Zarautz

m
memoria
Zarauz
Hileta
Zerbitzuak

Lagun Onaketik jauzia egin, eta aurten Realean dabil Aiara Karrera errejildarra. Euskadiko selekzioan dagoeneko ohiko jokalarietako bat da, eta lehen aldiz Espainiako selekzioaren deia jaso du.

Baloia oinetan, bidea urratzen

-AITZIBER ARZALLUS

Aiara Karrera (Errezil, 2008) baloia oinetan duela ikustera aspaldi ohitu ziren haren ingurukoak. «Oinez hasi orduko hasi zen baloia ostikoka», gogora ekarri du haren amak, Nerea Al-dalurrek. «Ume-umetatik naba-ritzen zitzaion kirolerako gaitasuna zuela. 2 urte besterik ez zituela, jendea harrituta gelditzen zitzaion begira baloia nola erabiltzen zuen ikusita; boteak ematerakoan edota ostikadak ematerakoan, ikusten zitzaion koordinazio gaitasun handia zeukala». Eta horrez gain, futbolak asko erakarri izan du beti. «Etxean ez gara izugarritzko futbolzale horietakoak; Aiaren aita ibilitakoa da, baina niri ez zait sekula interesatu izan. Aiara, ordea, ume-umetatik izan du futbolerako grina».

Lagun Onaketik Realera exijentzia mailan alde nabaritu duela aitortu du

Alacanten egon da hiru egunez 15 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin

Karrerak Errezilgo San Martin Herri Eskolan egin zituen Lehen Hezkuntza bukatu arteko ikasketak, eta Ikas Kirol programaren barruan, Azpeitiko talderen baten kontra futbol partidaren bat jokatzeari egokitzen zitzaizenean, zur eta lur uzten zituen kontrarioen gurasoak. Gutxi bezala erabiltzen zuen baloia oinetan, eta berdin zitzaion parean neskek zein mutilak izan; denei egiten zien aurre. Azpeitiko Lagun Onak taldean hasi zen gero, eta han ere aurki nabarmendu zen.


Bere adineko neskekin hasi zen entrenatzen, baina mutilen taldera pasatzeko aukera eman zioten, eta taldeko jokalaria erabakiorretako bat izan zen. Infantil txiki mailan taldeko jokalaririk onenaren saria errejildarrentzat izan zen; eta ohorezko infantil mailan, taldeko goletzaille onenarena irabazi zuen.

Koska bat gora

Realak ere berehala jo zuen begiz. «Infantiletan-eta Realak ez dauka nesken talderik, baina txapelketa batzuetan parte hartzen du beste taldeetako jokalariekin taldea osatuta, eta txapelketa horietan jokatzeko deitzen zidaten», esan du Karrerak. Aurten, ordea, Lagun Onaketik Realera jauzia egin du. «Emakumeen laugarren taldea sortu du Realak, kadeteen mailakoa, eta hartu egin naute».

DBHko 3. mailan dabil, Azpeitiko Urola Ikastolan, eta goiza eskolan pasatu eta gero, astean hiru arratsaldetan joaten da Zubietara entrenatzera: asteartetan, ostegunetan eta ostiraletan. «Oso gustura nabil, baina antzematen da alde. Orain arte ohituta nengoenarekin konparatuta, entrenamenduak luzeagoak eta gogorrak dira; exijentzia maila handiagoa da». Entrenamendu saioak ere desberdinak direla esan du. «Egunaren arabera, modu bateko edo besteko saioak egiten ditugu, baina beti bi parte izaten dituzte: entrenamendu saioa aurrea, eta gero osagai bat». Osagaiak hainbat eratakotako izan daitezkeela azaldu du: «Batzuetan adimen emozionala lantzen dugu; beste batzuetan gimnasia joaten gara eta han jarraitzen dugu; eta ostiraletan, hezkuntza saioa edukitzen dugu, eskolako lanak-eta egiteko». Asteburuetan, berriz, partidatzen dute.

Realeko egunerokora «ondo»



Aiara Karrera aurten hasi da Realaren laugarren taldean jokatzeko, kadeteen mailan. REALA

egokitu dela esan du errejildar-rak. «Orain taldekideak ditudana, netako batzuk aurretik ere eza-gutzen nituen, hainbat txapelketetan batera parte hartutakoak garelako, eta hori beti da lagun-garria».

Realarekin ez ezik, Euskadiko selekzioarekin ere lehiatzen du Karrerak. «Euskadikoa ez da talde finkoa izaten, txapelketaren bat edo partidaren bat jokatu behar den bakoitzean deialdia kaleratzen dute», azaldu du, eta orain arte, deialdi guztietan sartu dute.

Eta horrez guztiaz gain, futbolari lotutako beste esperientzia

bat bizitzeko aukera ere izan du orain dela gutxi. Hain zuzen ere, azaroaren 6tik 8ra Alacanten (Herrialde katalana) L'Alfas de Pi herrian izan da 15 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin entrenatzen, Laura del Rio hautatzaileak deituta. «Hainbat talde-tako 30 jokalaria aritu gara hiru egunez entrenatzen, eta oso esperientzia ona izan da». Deialdian bere izena ikusi zuenean ustekabe handia hartu zuela aitortu du. «Ez nuen espero deialdian nire izena ikusterik, eta alde batetik, sekulako poza hartu nuen; baina beste aldetik, urduritasuna ere sentitu nuen, le-

henengo aldia baitzen». Realeko beste hiru taldekide ere Karrera-rekin batera izan dira Alacanten, eta horrek lasaitasun pixka bat eman ziola esan du. «Han egon garen 30 lagunetatik hamahiru hautatu dituzte Lisboan jokatu-tako duten txapelketa batean parte hartzeko, eta ni ez naute hautatu». Hala ere, bizitako esperientziarekin gelditzen dela esan du. «Orain arte bezala segitzeko esan digute, sortuko direlako aukera berriak». Eta halaxe egingo du errejildarrek. «Futbolearen segiko dudala garbi dut, ikusiko dugu noraino iristeko gai naiz-en».

Hautzaroan jolasak duen garrantziaz saioa antolatu dute

–NEREA URANGA Azpeitia

Hautzaroan jolasak duen garrantziaren eta gurasoek haurren jolasean izan beharreko rolaren inguruko hitzaldia antolatu dute datorren ostegunerako Jauzia elkarteak eta Azpeitiko Udalak. 18:00etan izango da saioa, Basazabal jauregian. Hitzaldira joateko interesa dutenek aurrez izena eman beharko dute Azpeitiko Udalaren webgunean (azpeitia.eus) dagoen galdetegia betez.

Hitzaldiaren antolatzaileek aurreratu dutenez, jolasaren bueltan hainbat gai landuko dituzte osteguneko saioan: «Alde batetik, haurren komunikatzeko moduetako bat jolasa dela kontuan hartuz, haien bizitzetan zer leku izan behar duen azalduko dute. Bestetik, haurren egunerokotasunean jolasa zergatik den



Basazabal jauregia. I.E.

hain garrantzitsua kontatuko dute. Gainera, gurasoek haurren jolasean izan beharreko rolaz arituko dira hizlariak».

Hitzaldiak irauten duen bitartean, haurren zaintza zerbitzua egongo da. Saioaren gaineko informazio gehiago behar duenak, berriz, 943-15 71 61, 943-15 11 79 eta 943-15 05 16 telefono zenbakietara dei dezake.

Joseba Beristainen azken lanak beste sari bat jaso du Madrilen

–I. OTEIZA Azkoitia

Joseba Beristain musikari eta konposatzaile azkoitiarraren lanak beste sari bat jaso berri du. Hain zuzen, Martin Romerok zuzendutako *To bird or not to bird* animaziozko film laburrak Musika Original Onenaren saria irabazi du Alcine 52 film laburren lehiaketan, eta Beristain ar-

duratu da film labur horren musika konposatzeaz.

Alcala de Henareseko Udalak (Madril) eta Madrilgo Erkidegoak antolatutako jaialdia da Alcine 52, eta azkoitiarrak parte hartu duen *To bird or not to bird* film laburrak, Musika Original Onenaren saria ere irabazi du.

Errekauek zerbitzua jarri nahi dute martxan, sarean erosi eta etxean jasotzeko

Zerbitzuak aplikazio bidez erosketa zerrenda egin eta etxean edo kontsignan jasotzeko aukera eskainiko luke • Proiektua martxan jarri aurretik, udalak galdetegi bat bidaliko die herriko saltokiei

–IRAIA OTEIZA Azkoitia

Errekauek proiektua jarri nahi du martxan Azkoitiko Udalak, Herrixen merkatarien elkartearekin eta Iraurgi Berritzen garapen agentziarekin elkarlanean. Zerbitzua indarrean jarritz gero, aplikazio bidez erosketa zerrenda egin eta produktuak etxean edo kontsignan jasotzeko aukera eskainiko luke. Proiektua martxan jarri aurretik, orde, saltokien iritzia jaso nahi du udalak eskaintzak izan behar dituen ezaugarriak eta xehetasunak ondo lantzeko. Hori dela eta, udalak galdetegi bat bidaliko die herriko denda guztiei.

Lanketa Dendartean Gipuzkoako merkataritza elkarteak egingo du, eta fasea eramango dute hura aurrera. Lehenengo, Herrixen elkarteko kideei digitalizazio helaraziko diete galdetegiak, eta ondoren, Dendartean elkarteko arduradun bat saltokiz saltoki joango da informazioa jasotzera. Ordura arte erantzun ez duten saltokiek arduradunarekin batera galdetegia betetzeko aukera ere izango dute. Udalak saltokiei galdetegia betetzeko eskatu die, egin ditzaketan ekarpenek zerbitzua hobetzeko balioko dutelako. Halaber, herriarrei ere egingo diete galdeketa, eta arduradu-



Zenbait herritar, Azkoitiko Plaza Berrin. ANE OLAIZOLA

nak kalez kale ibiliko dira informazioa jasotzen.

Errekauek zerbitzua, Azoka Plazako eraberritze lanekin eta merkataritzaren dinamizazioarekin batera, Europatik jasotako Next Generation funtsen barruan kokatzen den proiektua da, udalak 1.362.949 euroko diru laguntza jaso baitu Europatik azoka eta merkataritza biziberritzeko. Udalak berriki ateratu dituzten lizitazioa Azoka Plazako obrak, eta horri lotuta, Errekauek egi-

tasmoa abian jartzeko asmoa du erakundeak.

Erosleek Whatsapp bidez egin ahal izango dute enkarguen zerrenda, eta erosketak etxean bertan, Azoka Plazan egokitzen den kontsignan edo saltokian bertan jasotzeko aukera izango dute, bezeroari ondo datorkion ordutegian. Herriarrei egunerokotasunean erraztasunak emateko modu egokia delakoan sortu nahi du Azkoitiko Udalak zerbitzu berria.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain
merkeago
TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne

UROLA KOSTAKO HITZA GUKA

Ostirala, 2023ko azaroaren 17a

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Iñitza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@uktu.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Arantz Mutiozabal.
Publizitate: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39, zarautz@uktu.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23, orio@uktu.eus.
Zumaia: 685 71 20 90, zumaia@uktu.eus.
Getaria: 607 49 87 23, getaria@uktu.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25, azpeitia@uktu.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27, azkoitia@uktu.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27, zestoa@uktu.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
943-30 30 35



Temperatura
V 17°
A 11°

Mareak
Itsasgora 06:30-18:58
Metroak 3.97-3.67
Itsasbehera 00:13-12:44
Metroak 1,00-0,92

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, ostirala

Ikuskizuna

Orio. Barreherka taldearen umorezko ikuskizuna, 19:30ean, Kultur Etxean.

Musika

Azkoitia. Bizkargi musika eskolaren 40. urteurren emanaldia. Ikasleekin ariko dira Sahatsa dantza taldea, Txalkor taldea, Iraurgi abesbatza eta Musika Banda. 19:00etan, Baztartxon.

Tailerra

Zestoa. Mendiko segurtasunaz tailerra Rafa Zuzarekin. 18:00etan, kiroldegian.

Bihar, larunbata

Bisita

Orio. Xabier Lizasorekin, Orioko elizako organoaren bisita gidatua, 11:30ean.

Musika

Azpeitia. V. mendeurren kontzertua (1523-2023): Joanes Antxieta, Francisco de Peñalosa eta Juan de Urrede. 19:00etan, Frantziskantako elizan.

Zarautz. Zarautz Abesbatzaren 40. urteurrenkontzertua Zarauzko Musika Bandarekin. 19:30ean, Aritzabaldan.

Zumaia. Klarinete laukoteen kontzertu-lehiaketa, 12:00etan Zumaia ikastetxeko domoan.

Etzi, igandea

Azoka

Zestoa. Arroabeen, artisau eta baserritar azoka, 10:00etatik aurrera.

Jaiak

Errezil. Jubilatuen Eguna, 13:00etatik aurrera.

Musika

Getaria. Gazte Alaiak txistulari taldearen kontzertua, 12:30ean, Salbadore Deuna elizan.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Omenaldia disko-liburu bihurtuta

Josu Txapartegi 'Txapas' zarauztarraren bizitza eta abestiak 'Txapasen kaxa magikoa' disko-liburuan bildu dituzte • Arantxa Urbek idatzi du ipuina, eta Xabier Zabalak musika

– JUAN LUIS ROMATET

Zarautz
Irakaslea, musikaria, konpositorea, herrigintzaren sinesle sutua... Josu Txapartegi *Txapas* zarauztarraren mila eta bat aurpegi jaso dituzte *Txapasen kaxa magikoa* disko-liburuan. Larunbatean egin zuten argitalpenaren aurkezpena Zarauzko Modelo aretoan, eta bertan izan ziren proiektuaren sustatzaile Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazak, ipuinaren egile Arantxa Urbe eta musiken konposatzaile Xabier Zabala. Barre egiteko aukera ugari izan zuten bertaratu zirenek. Une hunkigarriak eta negar malko bat edo beste ere izan ziren ekitaldian zehar.

Txapasi egindako omenaldi gisa ikus daiteke haren bizitzaren zatiak biltzen dituen ipuin ilustratua –Irrimarrako Karmele Gorroñok egin ditu marrazkiak– eta diskoan biltzen diren hamasei abestiak. Ekitaldia bera ere Txapasi egindako omenaldia izan zen, eta hark idatzitako hainbat abesti kantatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

«Txapasek ekarpen handia egin dio Zarautzi, Euskal Herriari eta munduari ere bai», azaldu zuen Joxemari Agirretxe *Porrotxek*. Aiora Zulaika *Pirritxen* arabera, Txapartegik «hezkontzan erakutsi du matematikak bezain garrantzitsuak direla *maitematikak*», eta hori guztia eskusoinuaren doinuekin erakutsi du. «Ekarri digu natura, ekarri dizkigu eguneroko arazok, eta ekarri dizkigu irtenbideak; hori dena musikaz. Berak emandako maitasunaren zati bat itzuli nahi genion ipuina edo disko-liburu kaleratuta».

Txapasen unibertsoa

Urbe Txapasen lankide eta lagunari eskatu zioten ipuina idatzeko. Enkargua pozik hartu zuela esan zuen hark, baina baita urduritasuna sentitu zuela ere:



Josu Txapartegi *Txapas*, pasa den larunbatean Modelon egin zen ekitaldiko une batean. JUAN LUIS ROMATET

«Ohere handi bat da nirekiko konfiantza hori izatea, eta ipuin horretan dago islatuta Txapas nire begietara zer den. Hasieratik erabaki bat hartu nuen, eta

Omenaldi gisa hartu daiteke Txapasen bizitzako zatiak biltzen dituen ipuina

erabakia izan zen ipuina ez zela hasiko 'bazen behin...' edo 'behin batean...' edo ez zela bukatuko 'eta hala bazan edo ez bazan...'». Ikastolan lankideak izanik, haren unibertso horiek ipuinera eramaten saiatu dela azaldu zuen Urbek: «Musika, herrigintza, euskara, Euskal Herriarekiko duen maitasuna, hezkuntza... Multzo horiek guztiak ordenatu nituen, eta horietatik tiraka ezaugarri batzuk jarri nahi izan nituen: hitz jokoak, asmakizunak».

Ipuinean hamasei abesti bildu dituzte, eta horien musika

Zabalak idatzi du. «Pianoarekin egindako melodia batzuk pasatu zizkidan. Abesti asko ziren, 40 inguru, eta horietatik bederatzia aukeratu genituen. Horrez gain, diskoan beste zazpi abesti ere badaude; Txapasekin abestiazionatuta dagoen materiala edo kantutak dira», gogoratu zuen musikariak.

Zabalaren ustetan, Txapasen abestiak etorkizunean *herrikoia*

hitzarekin lotutako kantak izango dira. «Txapas herriarekin dago lotuta, eta herriatik abiatzen da. Haren musikan ikusten da hori. Behar-beharrezkoa den musikaria da. Kanpotik datozen eta hor goian dauden musikariengan jartzen dugu arreta, baina hura bezalako jendea guztiz beharrezkoa da guk dauzkagun tradizioak, balioak eta ondarea transmititzeko».

Zozketa

HITZA kideen
TXOKOA

MARIAN EIZAGIRRE LARRAÑAGA (ZARAUTZ)

Hitza jarriko da irabazlearekin harremanetan



KIROLA

Gipuzkoa basket
Caceres Patrimonio de la Humanidad